

Ez gara aire



INMA ERREA CLEIX
IDAZLEA ETA
ITZULTZAILEA

Nafarroa Arenan *Mitoaroa* ikusten izandako lagun batek “telurikotzat” jo zuen entzun-ikusitakoak. Niri ere hala iruditu zitzaidan teledibista medio etxetik hauteman nuena.

Pentsa daiteke *Mitoarook* piztutako grinak eta atxikimenduak proiektuaren ikusgarritasuna dutela oinarri, eta hala izanen da, baina bada beste zeozer sakonagoa fenomenoan. Pello Reparazek berak esanda, usteaz harago joan da jasotako erantzuna. Ikuskizun batek ez du hori lortzen ez badu estu konektatzen jendearen sentipenekin.

Baina, zeri estekatzen zaio gugan telurikotasun hori? Zeri egiten dio dei?

Herritik Iruñera bizitzera joan nintzanean, lekualdaketak pitzadurak eragin zizkidan. Gauza anitz aldatu ziren, eskola, usantzak eta lagunak, besteak beste, eta galera handi bat pairatu nuen: kontaktua ingurune naturalarekin, atxikimendua lurrarekin. Arbolen, belarraren eta lurraren usainak galdu (aziendagorotzena ere bai, dena esan behar...) eta hiri-giroko beste batzuk erregistratu behar izan nituen (gasolina, asfalto eta askotariko sukaldearen usain-nahastu-

Lurrezko izaerak tira egiten digu, telurikotasunak, errealitate ukigarri eta hunkigarrien gogoak, harri bat ordenagailuaren alboan

rak...). Eta autoen eta tailerren zaratek ordeztu zituzten herriko txorrotxio-adausi-marru-karaka-balakak.

Hizkuntza-giroan ere mudantza: Zilbetiko gaztelaniak euskararen oihartzun zaharrak zituen gorderik, eta Iruñean berehala hauteman zituzten haiek nire mintzoan. Nire gaztelaniari etiketa jarri zioten ikastetxean: arraro (eta ni isil-lotsati gelditu).

Oraindik senti dezaket orduan bihotza dantzan paratzen zidan bozkario handia Zilbetiko lur hezea zapaltzean edo zuhaitz bat besarkatzean (ez da berria boladan den keinu osasungarri hori). Euforia hark pila-karga baten eran funtzionatzen zuen, helduleku bat zen aitzina egiteko jada arrunta nuen baina oraindik artifizial sentitzen nuen hiriko bizimoduan.

Pandemiaren garaian bezala, non gutako gehienok hartu baikintuen naturarekiko irrikak, guztiz irrealak zirudien egoerari aurre egiteko.

Erdibituta bizi gara?

Teknologiak eta aurreramentu digitalak airez aire bultzatzen gaituzte, gu ere aire bilakatuta; eta haiekin pozik edo egiten dugu aitzin mundu globalizatuan, pitin bat izaki magiko bihurtzen gaituztela.

Baina lurrezko izaerak ere tira egiten digu, telurikotasunak, errealitate ukigarri eta hunkigarrien gogoak, harri bat ordenagailuaren alboan, mintzo zaharrek hizkuntza unibertsalen pare, txorrotxioak eta lohia bitekin eta lurrin artifizialekin lehian. Ez gara aire. Zorionez. ●



Soziolinguistika aldizkaria

- XABIER ARREGI > Euskara, adimen artifiziala eta arimen naturala.
- JOSU AZTIRIA > Politika publiko digitalak euskararen biziberritze-aro berria bultzatzeko.
- EDUARDO APODAKA, ASIER AMEZAGA ETA ASIER BASURTO > Itzulinguru proiektua. Itzultzaile neuronalen eragina euskararen erabileran.

harpidetu edo oparitu > URTEAN 40 euro

- Hiru hilez behin, BAT aldizkaria etxean bertan.
- Hiru hilez behin, BAT aldizkaria PDFn eta EPUB-en jaso.

<https://bat.soziolinguistika.eus> / 943 592 556
bat.aldizkaria@soziolinguistika.eus





SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
Euskara biziberritzeko ikergunea

BAT 133. ZENBAKIA ADIMEN ARTIFIZIALA ETA EUSKARA

GUREAN atala

- URKO IKARDO > Bortzirietako bilakaera soziolinguistiko aztergai Euskara Mankomunitatearen plan estrategiko berriaren atarian.
- ITXASNE ETXANIZ, AITOR MONTES, IZASKUN ELEZGARAI, MAISIE EDWARDS, ALWENA MORGAN ETA JON ZARATE > Osasun arreta euskaraz jasotzeari buruzko pertzepzioen ebaluazioa EHUko Medikuntza graduan (ikasleekin eginiko ikerketa pilotoa).
- NAROA ANABITARTE > Zer den (esaten) eta zer ez. Begiratu labur bat euskararen ideologiari.